

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, KARRANTZAKO UDALAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2015.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak aho batez onartu zuen joan den maiatzaren 18an Karrantza Haraneko Udalaren eta Karrantza Harana bere sozietate publikoaren ekonomia-finantzaren kudeaketaren gaineko fiskalizazio txostena, 2015eko ekitaldiko.

Urteko kontuei dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** eman du bi erakundeei dagokienez; alabaina, Udalaren Diruzaintza Geldikina 178.482 euroan murriztea eragiten duen doiketa bat azaleratu du. HKEEk, gainera, ez du Udalaren Balantzeko Ibilgetuaren eta Erabilera orokorrerako ondarearen saldoen gaineko iritzirik ematen, kontularitzako erregistroaren prozeduretan azaleratu diren akatsak direla eta.

Finantza egoerari dagokionez, HKEEk adierazi du Udalak behar hainbateko baliabideak dituela ondo funtzionatu ahal izateko, zorpetzera jo beharrik izan gabe, nahiz beharrezkoa den etorkizunean aurrekontuko gastu eta sarreraren gaineko kontrol zorrotza izatea.

Gainera, txostenak ondorioztatu du Udal artekaritzak jaulkitako txostenaren arabera, 2015ean aurrekontuaren egonkortasun eta finantzaren iraunkortasun eta gastuaren araua bete dela.

Honela, bada, Txostenak ondorioztatu du bai Udalak bai bere sozietate publikoak zuzentasunez bete dutela 2015eko ekitaldian udalaren ekonomia-finantza jarduera arautzen duen lege araudia; ordea, 11 langileren nominetan zenbait plus barne hartu dira horiek onartu izana inon jaso ez dela, ez eta horiek kalkulatzeko formula ere; gainera, energia elektrikoaren hornidura kontratu txikiaren prozedura baliatuta kontratatu da, publikotasunari eta esleipen prozedurei buruzko betekizunak saihestuta.